

# Osoko bilkura

Donostian, 2014ko maiatzaren 30ean

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,  
Videgain, Xarles, buruordea,  
Kintana, Xabier, idazkaria,  
Aleman, Sagrario, diruzaina,  
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,  
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,  
Goenaga, Patxi,  
Iñigo, Andres,  
Oihartzabal, Beñat,  
Peillen, Txomin,  
Toledo, Ana,  
Uribarren, Patxi eta  
Zabaleta, Patxi.

Mujika, Alfontso,  
Osa, Erramun eta  
Zabaleta, Joseba,  
zegozkien gaietan.

**Ezin etorriak eta ahalak:** Aurelia Arkotxak ahala Ana Toledori; Miren Azkaratek ahala Patxi Goenagari; Jose Irazu «B. Atxaga»-k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Miren Lourdes Oñederra ahala Patxi Goenagari; Andoni

Sagarnak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Patxi Goenagari; Joan Mari Torrealdaik ahala Xabier Kintanari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Donostiako Foru Diputazioan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta horien ahalak irakurri ditu. Ondoren, quoruma badela egiaztatuta, Euskaltzaindiaren maiatzeko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

## 1. Osoko bilkurako (2014-03-28) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Oharririk ez denez gero, bilera-agiria ontzat eman da.

## 2. Exonomastika:

**2.1. Bibliako pertsona izenak: jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, ezta-baidatu eta erabaki, hala badagokio.** Bi ohar jaso dira. A. Iñigok eskatu du zerrenda hauetan ere, koherentziagatik, onomastikako gainerako arauetan bezala jokatzeke, zehar-marra, marra eta komaren erabilerari dagokionez. Ohartarazi du 141. arauaren arabera, zehar-marra (/) herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean erabiltzen dela, Doneztebe / Santesteban esaterako.

Alfontso Mujikak erantzun dio, eta Exonomastika batzordearen orain arteko erabileraren arazoak azaldu ditu. Gauzak horrela, A. Iñigok eskatzen duen bate-ratasuna errespetatzeko, onarturiko bi izenen artean, zehar-marra jarri beharrean edo jartzea proposatu du (alegia, Menes/Meni eta Djoser/Zoser ordez Menes edo Meni, Djoser edo Zoser). Oharra ontzat eman da.

P. Goenagak galdetu du ea zertan gelditu den Donostia / San Sebastián eta Vitoria-Gasteiz izen bikoitz horien idazkera, zehar-marra ala marrarekin. A. Iñigok azaldu du Euskaltzaindiak onartutako arauetan zehar-marra daramatela, baina azken erabakia dagokion udalak hartzen duenez gero, Gasteizko Udalak Vitoria-Gasteiz erabaki zuela eta Donostiakoak, aldiz, duela bizpahiru urte, Euskaltzaindiaren araua errespetatuz, Donostia / San Sebastián onartu zuela. P. Zabaletak azaldu duenez, horrelako izenetan kompetentzia eskumen ezberdinak daude (Gobernua eta udala, esaterako). P. Goenagak marrari desegoki deritzola gaineratu du.

B. Oihartzabalek, bestalde, galdetu du Baiona / Bayonne kasuetan ba ote den ordena arauturik. Aurreko arazoiengatik puntu hori ere udalek edo agintariek erabakitzen dutela erantzun zaio.

P. Uribarrenek ohar bat aurkeztu du liturgian maiztasun handia duten izen bibliko batzuen kasurako. Hor, adibidez, batzordeak proposatzen dituen *Petri, Joanes, Josef, Marko* eta *Jakue*-ren ordez, gogorarazi du herri-erabileran badirela *Pedro, Joan, Jose, Markos* eta *Santiago* ere, eta horiek ere aintzat hartu beharko lirakeela. A. Mujikak erantzun idatzia ekarri du, horien guztion kasuistika azalduz. Arazo nagusia hauxe litzateke: santu-izen horiek ez direla Exonomastika batzordeak orain proposatuak, jada 1996an Euskaltzaindiak arautuak baizik, eta beraz, batzordeak haiekin jokatu behar izan du.

P. Goenagak, nolana ere, eta aurreko erabakiak gorabehera, P. Uribarrenen kezkarri irtenbide bat eman beharko litzaiokeela esan du, kultura unibertsalaren

ikuspegitik ez bada ere, bai bederen inguruko kristau-mundua kontuan izanda. B. Coyosek, ordea, *Pedro*, *Jose* eta *Santiago* bezalako izenak Iparraldekoen begi-belarrietarako behintzat, espainol hutsak direla azpimarratu du. X. Videgainek zalantzak azaldu ditu. Bikoitzasunaren aldeko iritzirik ere izan da, baina argi egon da hori aurretik Euskaltzaindiak harturiko erabakiaren aurka letorkeela.

B. Oihartzabalek arazo horretaz batzordeak gogoeta egin dezan eskatu du, Onomastika batzordeari ere kontsulta eginez. Horrela egitea ontzat hartu da, betiere maiztasun handiko izen horiei buruz.

**2.2. Antzinateko antroponimia eta mitonimia: mundu grekoa aurkeztu.** Ondoren *Antzinateko pertsona-izen grekoak* deritzon zerrenda aurkeztu du A. Mujikak. Pertsonaia historikoen izen horiek hautatzeko irizpide nagusia berorien garrantzia eta historia-liburu eta entziklopedietan agertzeko maiztasuna izan da. Grafiari dagokionez, grezierazko letraldatze zehatza goi mailako ikerketarako eta maiztasun urriko izenentarako utzirik, Euskaltzaindiak 1997an emandako 76. arauan oinarritzen da, orduan onarturiko egokitzapen berak erabiliz. Bertoko tradizioak eta inguruko beste hizkuntza nagusietan finkaturiko ereduak kontuan hartu izan dira, kasu bakoitzerako, ahalik eta gehien, proposamen bakarra eginez, zalantzarako kasu gutxi batzuetan izen bikoitzasuna utzirik: *Kleitias* edo *Klitias*, *Odiseo* edo *Ulises*, esaterako. Ekarpinak eta zuzenketa-proposamenak ekainaren 20rako bidali behar dira Euskaltzaindira.

### 3. *Astronomiako oinarritzko lexikoa aurkeztu.*

Antton Gurrutxagaren ezin etorriaz, Xabier Kintanak aurkeztu du *Astronomiako oinarritzko lexikoa*, Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmorako taldeak prestatua. Aurrekoetan bezala, arlo horretan gehienik erabiltzen diren kontzeptuak aipatzeko izenak bildu dira, euskaraz gai horretan argitara emandako testuliburu, artikulua eta entziklopediak kontuan izanda. Era berean, lexiko horren ingeles, frantses eta espainiera itzulpenak eskaini dira, argibidetzat. Oharrak ekainaren 30erako bidaltzea erabaki da.

### 4. Ohorezko euskaltzainak izendatzea

Andres Urrutia, Xarles Videgain, Xabier Kintana, Sagrario Aleman, Adolfo Arejita eta Jean-Baptiste Coyos euskaltzain osoek eta, aldi berean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza osatzen dutenek, Arautegiaren 39. artikuluan jasorikoa kontuan hartuz, ondoko pertsona hauek proposatu dituzte idatziz ohorezko euskaltzainak izateko:

Abizenak	Izena
Agirrebaltzategi Kortabarria	Paulo
Aintziburu Camino	Anjel
Amundarain Sarasola	Dionisio
Amuriza Sarrionandia	Xabier
Arbelbide Mendiburu	Xipri
Campos Illarramendi	Antonio
Idirin Solatxi	Maite
Itzaina	Mixel
Landaburu Illarramendi	Jon
Martí i Castell	Joan
Orbe Monasterio	Martin
Ruiz Urrestarazu	Manuel Maria

Era berean, hautagaien merezimenduak ere banatu dira. Norbaitek hautagai bakoitza bozkatzea eskatzen zuen galdetuta, inork ez du halakorik adierazi. Ondorioz, guztiak aho batez onartuak izan dira eta izendatuei horrela jakinaraziko zaie.

**5. Batzordeetako, lantaldeetako, egitasmoetako eta zerbitzuetako 2013. urteko errendapenak eta 2014. urteko planak. Jasotako oharrak eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.**

Aurreko Osoko bilkuran banaturiko errendapenei eta urteko plangintzei inolako oharrik ez zaiela egin esan du E. Osa idazkariordeak. Horiek horrela, bere horretan onartu dira. Era berean, aurreko Osoko bilkuran iragarri zenez, gaur, Gramatika batzordearen 2013. urteko errendapena, bai eta Euskara Batuaren Eskuliburuaren eta Gramatika batzordearen 2014. urteko planak aurkeztu dira. Herri Literatura batzordearen 2013. urteko errendapena eta 2014. urteko plana aurkeztea falta dela esan da. Nolanahi ere, azken bi hauek ere eginda daudenez gero, datozen egunetan euskaltzainei eskuratuko zaizkie.

Ekarpenak eta zuzenketa-proposamenak ekainaren 20rako bidali beharko dira Euskaltzaindira.

## 6. Euskaltzaindiko ikertzaileen estatutua. Jasotako oharra eta iruzkinak aurkeztu, eztabaidatu eta erabaki, hala badagokio.

Idatziz bi ekarpen jaso dira; batetik, epearen barruan, P. Goenagak eginikoa; bestetik, Osoko bilkuran finkaturiko epeaz kanpo, M. Azkaratek egindakoa. Biak euskaltzainei eskuratu zaizkie bilkuran. Era berean, A. Urrutiak ahoz zenbait zalantza jaso dituela adierazi du.

P. Goenagak beharrezko dakusa ikertzaileen estatutuaz erabaki ahal izateko, kanpoko aditu baten txostena lagun duela ekartzea, besteak beste, arriskuen-eta berri izateko edota Euskaltzaindia non sartzera doan jakiteko. Testuak beste irakindaldi bat behar du, edo gatza, edo azken ukituren bat, bere ustez.

X. Videgainek esan du testu pisutsua dela eta orrazketa behar duela, formaz arintzeko, ongi ulertua izan dadin. Euskaltzaindian ikerketak egiteko, jende berriari erraztasunak eman behar zaizkiola uste du. Bestalde, unibertsitatearen susmoak eta inoren esku-sartzeak gaizki ikusiak izan daitezkeela pentsatzen du.

A. Arejitaren ustez, Euskaltzaindia ikertegi gisa instituzionalizatzeko, lehenengoz egiten den urratsa da oraingoa, eta hori etorkizunerako pauso garrantzitsua da, Akademiak darabilen praktikari urrats berria ematea, Napoleonen garaiko unibertsitate ereduak gainditu beharra dago eta. P. Zabaletak esan du pauso hori erakunde gehienetan normala izaten dela, eta lagun batzuen aldetik izan daitekeen beldurra saihesteko, hitzarmenak egitea proposatzen du berak, hots, kontratu partekatuak (Euskaltzaindiak eta Gobernuak, adibidez, arlo bat aztertzeke eta abar). Eta horrek ez dio beldurrik ematen. Kontratua izan dadila helburu bati lotua (obra-kontratua). Helburuak ekonomikoak eta juridikoak izan daitezke, eta langileekiko segurtasuna azpimarratu du. B. Oihartzabalek sortu nahi den ikertzaile-figura horretan etorkizunean zer izango den jakin nahi luke.

P. Goenagak esan du paperak dena jaso dezakeela, baina proiektua presa handiegiaz egina dela, eta gauza asko falta zaizkiola uste du. Ez da garbi ageri horrek Euskaltzaindiari zer dakarkion. Hor ez da aipatzen hitzarmen moduko zerbait eratu beharko litzatekeenik. Bestelako erreferentziak (fundazioen edo unibertsitateen bidez garatuak) ere kontuan hartu beharko liratekeela esan du.

P. Uribarrenek, argibide gisa, hiztegia egiten dihardutenen estatusaz galdetu du.

Andres Urrutiak P. Goenagaren eta M. Azkarateren oharra eskertu ditu. Ondoren, esan du inork ez duela planteatzen masterrak edo doktorego ikastaroak Euskaltzaindian egitea, baina egiten badira, egin bitez legearen arabera. Bere iritziz,

batzuek uste dute Euskaltzaindian ez dela egin behar noizik behingo batzarrak baizik. Baina egitasmoak ere egin dira. Hor marko bat proposatzen da, akademikoa eta laborala. P. Goenagari zuzenduz, txosten juridikoa eskatzen duela esan du, baina, zeri buruzkoa eta nork egitekoa? Euskaltzaindiak badauka nortasun nahikoa bere bidea egiteko, bere ustez.

Adolfo Arejitak esan du emaitzak eta oharrak eskertzen direla, eta proiektua osatzeko balioko dutela. Gogorarazi du enpresek ere, unibertsitateaz gainera, iker-tzen dutela. Inork ez du ikertzeko ahalmen eskusiboa. P. Uribarreni M. Azkarateren proposamena gustatu zaio, eta, bere ustez, P. Goenagak berea zehaztu beharko luke.

B. Oihartzabalek iraganean ere Euskaltzaindiak ikerketa-lanak egin dituela oroi-tarazi du, batzuk ikertzaileen artean oso estimatuak gainera.

Andres Urrutiak esan du maiz ikerketen kudeaketan ondorio negargarriak ger-tatu izan direla, eta proiektu hau ikerketak ondo kudeatzeko tresna izan daitekeela. P. Goenagak, ordea, oso txarto deritzo proposamen-txostenari. Halere, A. Urru-tiak kritikak onartzen dituela esan du, proiektua hobetzeko.

B. Oihartzabalek ez du uste Euskaltzaindiari kalte eta konkurrentzia egiteko asmo gaiztorik dagoenik. A. Urrutiak gogorarazi du krisi ekonomikoa gaudela, eta finantzaketa, azken buruan, agintariengandik datorrenez, dauden proiektuak zein bere lekutik joan barik gauzak amankomunean eta koordinatuki eraman beharko lirakeela. X. Videgainen ustez, testuak kontestualizazioa falta du.

S. Alemanek garbi dakusa B. Oihartzabalen kezka, hots, ikertzaileen lan-baldin-tzak eta egonkortasuna bermatu nahia, baina, ez du ondo ulertzen, ordea P. Goe-nagarena. Beronek esan du erabaki bat hartzeak ondorioak ekar ditzakeela, ekono-mikoak batez ere, eta ea plan horrek etorkizunerako garantiarik daukan ala ez aurretik pentsatu behar dela.

A. Urrutiak galdetu du plan hori nork egingo duen, zertaz eta zer galdetzeko. Maiz eskatzailearen araberako erantzuna izaten dutelako. P. Goenagak txosten tek-nikoa nahiago lukeela esan du, baina ez du zehaztu hori nork egin beharko lukeen.

Amaitzeko, proposamen-txostena, zehatzago azaldua, berriz aurkeztea onartu da. Eta oharrak ere ekainaren 11rako bidaltzea erabaki da.

## 7. Esku artekoak.

**7.1. Peli Latorre euskaltzain urgazlearen heriotzaren berri.** Peli Latorre 2013. eko abuztuaren 21ean hil zen. Zuzendaritzak Manu Ruiz Urrestarazu euskaltzain

urgazleak, gaur jada ohorezkoa izendatuak eta hainbat urtetan Arabako ordezkari izan denak hilberri txostena presta dezan proposatzea erabaki du, 2014ko maiatzaren 14ko bilkuran. Ondo ikusi da proposamena Osoko bilkuran.

**7.2. Xabier Kintana Real Academia Galegaren Buletinaren Batzorde zientifikoko kide izendatua izan da.** Izendapenaren berri eman da Osoko bilkuran. Hori dela eta, Euskaltzainburuak X. Kintana Euskaltzaindiko idazkariari zorionak eman dizkio.

**7.3. Sari desberdinetan epaimahaikotzat Euskaltzaindiak proposatu dituen kideak.**

**7.3.1. Espainiako sari nazionalak.** Epaimahaiko kideak proposatzeko eskaria iritsi zen Espainiako Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik. Literatura Ikerketa batzordearen proposamenak-eta kontuan hartuz, ondoko pertsona hauek proposatzea erabaki zuen Zuzendaritzak, 2014ko apirilaren 9ko bilkuran:

- Espainiar Letretako Sari Nazionala: Kaltzakorta Elortza, Jabier eta Etxebarria Zamalloa, Igone.
- Literatura Sari Nazionala (Poesia): Otaegi Imaz, Lourdes eta Kortazar Uriarte, Jon.
- Literatura Sari Nazionala («Miguel Hernández» Gazte Poesia): Billelabeitia Bengoa, Miren eta Gartzia Trujillo, Sebastian.
- Literatura Sari Nazionala (Haur eta Gazte Literatura): Landa Etxebeste, Mariasun eta Bijueska Basterretxea, K. Josu.
- Literatura Sari Nazionala (Narratiba): Azkarate Villar, Miren eta Iturralde Uria, Joxe Mari.
- Literatura Sari Nazionala (Saiakera): Urretabizkaia Bejarano, Arantza eta Sudepe Martija, Juan Luis.
- Literatura Sari Nazionala (Literatura Dramatikoa): Perez Lopez, Jose Agustin eta Fernandez Iglesias, Arantzazu
- Literatura Sari Nazionala Itzulpenik Hoberenari: Rekalde Irigoien, Paskual eta Segurola Azkonobieta, Koro.
- Literatura Sari Nazionala Itzultzaile baten Obrari: Rekalde Irigoien, Paskual eta Segurola Azkonobieta, Koro.

– Kazetaritza Kulturalerako Sari Nazionala: Arejita Oñarte-Etxebarria, Adolfo eta Jauregi Pikabea, Idoia.

Ondo ikusi dira Osoko bilkuran.

**7.3.2. Euskadi literatura sariak.** Euskarazko Literatura itzulpenetarako epaimahaikide bat proposatzeko eskaria iritsi zen Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kultura Sustatzeko zuzendaritzatik. Aingeru Epaltza euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki du Zuzendaritzak, 2014ko apirilaren 30ean. Ondo ikusi da.

**7.3.3. Iruñeko Udalaren eskaria Euskarazko Haur Literaturako Lehiaketarako.** Iruñeko Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetz hitzarmenaren esparruan, lehiaketa horretarako epaimahaian Euskaltzaindiak ordezkari bat izatea finkatu zen. Ondorioz, epaimahaikide hori izendatzeko eskaria egin du Iruñeko Udalak. Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazlea proposatzea erabaki du Zuzendaritzak, 2014ko maiatzaren 14ko bilkuran. Ondo ikusi da.

#### 7.4. Lankidetz hitzarmenak

**7.4.1. EEP erakundearen eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetz hitzarmen marko berria (2014-2016 aldia barruratzen duena) eta 2014ko urteko gehigarria.** Biak izenpetu dira Baionan, 2014ko maiatzaren 20an, Euskaltzaindiaren ordezkarietan. Marko berrian bi aldeek adostu dute, besteak beste, era didaktiko eta dibulgatiboan, hurrengo urteetan eta Ipar Euskal Herriari begira, Euskaltzaindiak euskara batuaren alorrean eginiko lana zabaltzea eta hedatzea, teknologiak eskaintzen dituen bide berriak erabiliz. Era berean, urteko gehigarriaren arabera, 2014. urtean Euskaltzaindiak 140.000 euro jasoko ditu, besteak beste bere lanei eusteko, bai eta hiru liburu berri argitaratzeko ere.

**7.4.2. Euskaltzaindiaren eta Eako Udalaren arteko lankidetz hitzarmena.** Ea udalerriko oroimen kolektiboa jasotzeko egin beharreko ikerketaren tutoretza akademikorako oinarriak zehazteko, Eako Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetz hitzarmena adostu da. Adolfo Arejita Iker Sailburu eta EHHA egitasmoaren zuzendariak, lankidetz hitzarmenean jasoriko tutoretzaren ardura hartuko du.

**7.5. Aurtengo Ibilaldiak saria Euskaltzaindiari.** Ibilaldiak urtero antolatzen du euskararekin loturiko omenaldi bat. Aurten, euskalkien inguruan lanean ibiliko elkarte eta erakundeak omenduko ditu, horien artean Euskaltzaindia. X. Videgain EHHA egitasmoan diharduena, joango da saria jasotzera, Euskaltzaindiaren izenean.



**7.6. Euskal Eskola Publikoaren jaia.** Ekainaren 1ean Euskal Eskola Publikoaren jaia ospatuko da Balmasedan. Euskaltzaindiak hasierako ekitaldian parte hartzeko gonbita jaso du. Akademiaren izenean X. Kintana, Euskaltzaindiaren idazkaria, joango da.

**7.7. Hurrengo bilkura:** Gasteizen egingo da, ekainaren 27an, hiriko udaletxean, goizeko 10:00etan. Egun horretan Gasteizko Toponimia egitasmoa dela eta, Gasteizko Udalaren eta Euskaltzaindiaren artean lankidetzeta-hitzarmena izenpetzeko asmoa dago.

#### **8. Azken ordukoak.**

Ez da izan.

Eta besterik ez dela, 14:00etan Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,  
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,  
idazkaria